

2/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025EKO OTSAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elosegí Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane Nuñez Yarla (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025eko otsailaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta, gai-zerrendari heldu aurretik, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan xedatutako aukeraz baliatuz, Osoko Bilkura honetako gai-zerrendan urgentziaz sartzeko gai bat planteatu du: “Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena; hiru hamarkada berdintasunaren bidean” adierazpen instituzionala, 2025eko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Korporazioko bi alderdi politikoek adostutakoa.

Hori horrela, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan xedatutako gehiengoa betez, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

BAKARRA. Gaurko osoko bilkurako gai-zerrendan sartzea, 8. puntu bezala, honako gaia, hurrenkeran ondorengo puntuari dagokion zenbaki korrelatiboa egotziz:

8. “Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena; hiru hamarkada berdintasunaren bidean” adierazpen instituzionala, 2025eko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta.

Behin aurrekoa bozkatuta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- ONDORENGO BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA: 2024KO URRIAREN 29KOA, 2024KO AZAROAREN 26KOA, 2024KO ABENDUAREN 30EKO ETA 2025EKO OTSAILAREN 6KOA.

2024ko urriaren 29ko, 2024ko azaroaren 26ko, 2024ko abenduaren 30eko eta 2025eko otsailaren 6ko osoko bilkuretako aktak onestea proposatuta, Nuria Carbonell Mirandak, EAJ-PNV talde politikoaren bozeramaileak, ohartarazi du akats bat dagoela 2024ko urriaren 29ko osoko bilkuraren aktan; izan ere, akta hori ohiko osoko bilkura bati dagokio, eta ez “ezohiko” bati, goiburuak oker adierazten duen bezala. Bertaratutako guztiak ados agertu dira EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak planteatutako zuzenketarekin, eta akta hori berriz ez idaztea eta sinatzea erabaki dute, zuzenketarako nahikoa izanik akta honetan jasotakoa.

Ondoren, goian aipatutakoa kontuan izanik, aho batez onetsi dira ondorengo bilkurei dagozkien aktak: 2024ko urriaren 29koa, 2024ko azaroaren 26koa, 2024ko abenduaren 30ekoa eta 2025eko otsailaren 6koa.

2.- ANOETAKO LASARBE A-14 EREMUKO URBANIZAZIO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta A-14 “Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren aurrekariak azaldu ditu. Besteak beste, 2024ko martxoaren 21eko Osoko Bilkuran, Udaltzako hasierako onespina eman zion A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntualari, eta jendaurrean jarri zen. 2024eko urtarrilaren 30eko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Diputatuaren Foru Agindu bidez (FA-ML-2025-0006), behin betiko onespina eman zitzaion lehen adierazitako aldaketari. Bestalde, A-14 zatian egin beharreko aldaketak eta Plan Partzialaren 2.aldaketaren beharra ikusita, Udalak Hirigrama Kooperatiba Elkarte Txikia enpresa kontratatu zuen “A-14 Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa idazteko. Aldaketaren proiektua 2024ko ekainaren 21ean, 744. sarrera-erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zen Udaletxeko erregistroan ondorengo dokumentazioarekin:

- A dokumentua: memoria, dagozkion eranskinekin (segurtasun eta osasun azterlana, kalitatea kontrolatzeko programa eta hondakinak kudeatzeko azterlana).
- B dokumentua: aurrekontua.

- C dokumentua: baldintza-agiria.
- D dokumentua: planoak.

2024ko azaroaren 14an, 1526. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Gilen Txintxurreta Beitia arkitektoak proposatutako aldaketan aldeko txostena aurkeztu zuen Udaletxeko erregistroan. Txosten horren ondorioetan jasotzen denez, *“A-14 LASARBE sektorearen urbanizazioaren 2. fasearen aldaketak dokumentazioaren oinarritzko baldintzak betetzen ditu, ez du Egitura Erregimena aldatzen eta proposatutako helburuak betetzeko proposatutako aldaketak teknikoki justifikatzen ditu. Horrenbestez, eta aurretik azalduta, planteatutako aldaketaren aldeko txostena egin da, eta Udalbatzari proposatu zaio espedientearekin jarraitzea”*.

2025eko otsailaren 18an, udal arkitekto teknikoak -14 “Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren gaineko txostena egin zuen, proiektua Udalbatzaren erabakiaren mende jartzearen aldekoa.

Kontuan hartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194. eta 196. artikulua, aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertutik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Hasiera batean onestea A-14 Lasarbe sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa.

BIGARRENA. Jendaurrean jartzea espedientea, hogeit eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratuko diren ediktuen bidez, eta azken argitalpenetik aurrera. Iragarkia Udaletxeko Iragarki Oholean eta www.anoeta.eus web orrian ere argitaratuko da.

Epe horretan, espedientea Udaletxeko Bulego Orokorretan egongo da ikusgai, jendaurreko ordutegian.

3.- 2024KO URRIAREN 29KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKO “ANOETAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027” DOKUMENTUAN AKATSA ZUZENTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du 2024ko urriaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako “Anoetako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027” dokumentuan zuzendu beharreko akatsa dagoela.

2024ko azaroaren 25ean Euskara teknikariak txostena egin zuen akatsaren ondorengo zuzenketa proposatuz:

“...

Ikusirik 52. orrian akatsa dagoela, honako zuzenketa egin behar da.

Hau dioen lekuan:

IDAZMENA IRAKURMENA	ETA	MINTZAMENA ENTZUMENA	ETA
A2		B1	
A2		C1	
B1		B2	
B1		C1	
C2		C1	

Hau jarri behar du:

IDAZMENA IRAKURMENA	ETA	MINTZAMENA ENTZUMENA	ETA
A2		B1	
B1		B2	
B2		C1	
C2		C1	

Proposamena:

Udalbatzak zuzenketa hori egitea 2024ko urriaren 29an egindako Osoko Bilkuran onartutako “Anoetako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027” dokumentuan.

...”.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Zuzentzea 2024ko urriaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako “Anoetako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027” dokumentuaren 52. orriko akatsa, ondorengo moduan:

Hau dioen lekuan:

IDAZMENA IRAKURMENA	ETA	MINTZAMENA ENTZUMENA	ETA
A2		B1	
A2		C1	
B1		B2	
B1		C1	
C2		C1	

Hau jarri behar du:

IDAZMENA IRAKURMENA	ETA	MINTZAMENA ENTZUMENA	ETA
A2		B1	
B1		B2	
B2		C1	
C2		C1	

BIGARRENA. Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren berri ematea Udaleko euskara departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (berariazko aplikazioaren bidez) eta UEMA mankomunitateari.

4.- “ANOETAKO UDALETXKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” IZENKO PROIEKTU TEKNIKO GAUZATZEKO OBRA-KONTRATUA (2024KAPI0004) ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta “Anoetako Udaletxeko eraberritze energetikoa” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obra-kontratuaren (2024KAPI0004) aurrekariak azaldu ditu, besteak beste, azkeneko Osoko Bilkuratik hona gertatutakoak gailendurik:

- Udalbatzak, 2025eko otsailaren 6an egindako ezohiko Osoko Bilkuran, honako erabakia hartu zuen gai-zerrendako bigarren puntuaren (“2024KAPI0004 kontratazio espedientearen baitan, kontratazio mahaiak egindako esleipen proposamena onartzeko eta enpresari dokumentazioaren errekerimendua egiteko proposamena”) gainean:

“...

Lehen. Onartzea Anoetako Udaletxea eraikinaren birgaitze eta eraberritze energetikoaren obrak kontratatze prozeduran (2024KAPI0004) Kontratazio-mahaiak UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresaren alde egindako esleipen-proposamena.

Bigarrena. UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresari, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak den aldetik, errekerimendua egitea, bost egun baliaduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, hau da, Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren 43. baldintzan aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkez dezan, ohartaraziz errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, eskaintza erretiratu duela ulertuko dela eta hurrengo lizitatzailerari dokumentazioa eskatuko zaiola, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

...”.

- Sektore Publikoko Kontratazio Legearen 150.2 artikuluan xedatutako esleipen aurretiko errekerimendua 2025eko otsailaren 7an egin zitzaion Unebide Obras y



Contratas, S.L. enpresari, Euskadiko kontratazio plataformaren bitartez 2025RTS00198789 erregistro zenbakiarekin.

- Enpresak 2025eko otsailaren 8an ireki zuen errekerimenduaren artxibo elektronikoa.

- Enpresak 2025eko otsailaren 12an bidali zuen errekerimenduan eskatutako dokumentazioa, Euskadiko kontratazio plataformaren bitartez eta 2025RTE00205232 erregistro zenbakiarekin.

- 2025eko otsailaren 18an, Idazkari Kontu-hartzaileak ziurtagiria egin zuen ondorengo jaso: *“Enpresak eskatutako dokumentazio guztia zuzen eta bere osotasunean aurkeztu duela eta, beraz, bere aldeko esleipena egokia dela”*.

- 2025eko otsailaren 18an, Idazkari Kontu-hartzaileak ebazpen proposamen-txostena egin zuen, Udalbatzarako ondorengo proposamena jaso:

“ ...

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Lehenengoa. “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obra-kontratua UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. (B75002162) enpresari esleitzea, horrek aurkeztutako eskaintzaren eta kontratazioa arautzen duten Baldintza Administratibo eta Tekniko Berezien Agirietan zehazten diren baldintzetan.

Bigarrena. Dagokion gastua xedatzea, Kontu-hartzaileak egindako fiskalizazio-txostenaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Diruzaintzari, dagozkioen kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

Laugarrena. Kontratuaren arduradun izendatzea udal arkitekto teknikoa.

Bosgarrena. Esleipen-ebazpena lizitatzailer guztiei jakinaraztea, SPKLren 151. artikuluan araututakoaren arabera arrazoituta, eta esleipen-iragarkia 7 eguneko epean argitaratzea kontratatzailearen profilean.

Seigarrena. OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresari kontratua sinatzeko zitazioa egitea. SPKLren 153.3. artikuluen arabera, kontratuaren formalizazioa esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaiei 151. artikuluan aurreikusitako moduan egiten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen egin beharko da.

Zazpigarrena. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuaren oinarritzko datuak jakinaraztea, esleipendunaren nortasuna, esleipenaren zenbatekoa eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokion banakapena barne.



Zortzigarrena. Kontratua gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabetekoa baino luzeagoa izan, formalizatzen denetik kontatzen hasita.

...”.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udaltzakoak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obra-kontratua UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. (B75002162) enpresari esleitzea, horrek aurkeztutako eskaintzaren eta kontratazioa arautzen duten Baldintza Administratibo eta Tekniko Berezien Agirietan zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Dagokion gastua xedatzea, Kontu-hartzailetzak egindako fiskalizazio-txostenaren arabera.

HIRUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Diruzaintzari, dagokioen kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

LAUGARRENA. Kontratuaren arduradun izendatzea udal arkitekto teknikoa.

BOSGARRENA. Esleipen-ebazpena lizitatzaileri guztiei jakinaraztea, SPKLren 151. artikuluan araututakoaren arabera arrazoituta, eta esleipen-iragarkia 7 eguneko epean argitaratzea kontratatzailearen profilean.

SEIGARRENA. OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresari kontratua sinatzeko zitazioa egitea. SPKLren 153.3. Kontratuaren formalizazioa esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileri eta hautagaiei 151. artikuluan aurreikusitako moduan egiten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen egin beharko da.

ZAIZPIGARRENA. Alkateari kontratua sinatzeko ahalordea ematea, Udalaren ordezkari gisa.

ZORTZIGARRENA. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuaren oinarriko datuak jakinaraztea, esleipendunaren nortasuna, esleipenaren zenbatekoa eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokion banakapena barne.

BEDERATZIGARRENA. Kontratua gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabetekoa baino luzeagoa izan, formalizatzen denetik kontatzen hasita.

5.- IZFE, S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du IZFE, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Udal honen arteko lankidetzahitzarmenaren (Udalari zerbitzu



informatikoetan laguntza teknikoa emateari buruzkoa) indarraldia 2024eko abenduaren 31n amaitu zela. Adierazitako epea bukatu baino lehen, IZFEtik luzapenerako dokumentu gehigarri baten zirriborroa jaso zuen Udal honek, baina ez da horren gaineko ebazpenik eman. Beraz, Idazkari Kontu-hartzaileak 2025eko otsailaren 19an egindako txosten juridikoari jarraiki, eta isilbidezko eta behin amaitu ondorengo luzapenak legez debekatuta daudenez, aurreko hitzarmenaren indarraldia 2024ko abenduaren 31n bukatutzat jo behar da eta beste hitzarmen berri bat sinatu behar da, Udal honek zerbitzu informatikoak jasotzen jarraitu dezan.

Hitzarmen berriaren eragin ekonomikoari dagokionez, IZFEk webgunean argitaratutako “2025ko aurrekontuen banaketa” dokumentuan jasotakoaren arabera, 2025. urtean Anoetako Udalak ordaindu beharreko zenbatekoa ondorengoa litzateke:

BANAKETA OROKORREKO IRIZPIDEA	OINARRIZKO ZERBITZU INFORMATIKOAK	KOMUNIKAZIO-LINEAK	OINARRI ZERGAGARRIA	BEZ	2025 GUZTIRA
ANOETA	21.124,98	500,00	21.624,98	4.541,25	26.166,23

Gastu hori 2025 ekitaldirako aurrekontuaren 1 0000.227.920.20.07 2025 aurrekontu-partidari egotziko litzaioke, zeinetan aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dagoen (AD 12 2025-00-000004-000, 2025-02-14), apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 25.3 artikuluan xedatutakoaren arabera (toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen seigarren tituluko lehen kapitulua garatzen du dekretu horrek).

Azkenik, hitzarmenaren edukiari begira, argi dago lankidetzahitzarmen arrunta dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI. kapituluan jasota dagoena, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorraren aplikazio-eremutik kanpo dagoela.

Horiek horrela, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzahitzarmen berria, espedientean jasotako edukiarekin.

BIGARRENA. 2025eko ekitaldirako 26.166,23 euroko kopurua onestea eta xedatzea, 1 0000.227.920.20.07 2025 “Kontratua.IKT zerbitzua.BB.OO.” aurrekontu-partidaren kontura.

HIRUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea hitzarmena sinatzeko, baita hitzarmena aplikatzeko behar diren gainerako kudeaketa eta izapide guztietarako ere, hitzarmena luzatzeko aukera barne.

LAUGARRENA. Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari ebazpen hau jakinaraztea.

BOSGARRENA. Hitzarmena argitaratzea egoitza elektronikoan (www.anoeta.eus), 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, 5.4 eta 8.1.b) artikuluetan xedatutakoari jarraituz, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren onarpenaren iragarkia.

II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2024ko azaroaren 18tik otsailaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Idazkari Kontu-hartzaileak hitza hartu du eta Alkatetzaren Dekretu bat, 2025ko otsailaren 6koa, gai-zerrendarekin batera bidalitako dokumentaziotik kanpo geratu dela adierazi du. Horren berri emateko, datorren ohiko osoko bilkurako Alkatetzaren ebazpenen artean sartzeari eta bis bezala zenbakitzea proposatzen du. Bertaratutako guztiak ados daude Idazkari Kontu-hartzailearen proposamenarekin.

Jarraian, Nuria Carbonell Mirandak, EAJ-PNV talde politikoaren bozeramaileak, 2025eko otsailaren 29ko 12. Alkatetzaren Dekretuaren gaineko informazioa eskatu du, alegia, Construcciones Aburuza, S.L. enpresa egiten ari den urbanizazio obraren gainekoa. Alkateak eskatutako informazioa eman du.

EAJ-PNV talde politikoaren bozeramaileak 2025eko otsailaren 7ko 18. Alkatetzaren Dekretuak ebatzitako espedienteko txostenak ere eskatu ditu, hots, 2024ko Aurrekontu Orokorrak 2025erako luzatzeko espedientearen baitakoak.

ANTOLAKUNTZA

7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman diren artekoak):

2024.11.21		
Hartzekodunak		IFZ / IFK
OCCIDENT GCO S.A.U. DE SEGUROS Y REASEGUROS		A28119220
Prozedura		
Higiezinaren aseguruia		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
APSN000202400003873	2024.11.19.	6.909,56 €
Laburpena		

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko azaroaren 22an egindako eragozpenezko txostena.

Goian aipatutako aseguruia inolako legeko euskarririk gabe kontratatu da.

Izan ere, urtez urte kontratatu ditu aseguru berdinak, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publikitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.

“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako” kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua araberak.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak kiroldegiko obradorearen aseguruia prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Hortaz, argi dago inolako oinarri juridikorik izan gabe kontratatu den zerbitzua dela, publikitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe, eta kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari-kontuhartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

569. DEKRETUA	
2024.11.28	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasca	2.027,14 €
Kontzeptua	
Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2024ko azaroko nomina	
Laburpena	
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko azaroaren 28ko eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jaso, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:	
<i>“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.</i>	
<i>II. Jose Miguel Otaño Garcarenena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutututako legez</i>	

kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

573. DEKRETUA

2024.12.20

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko abenduko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko abenduaren 19ko eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jaso, non, besteak beste, ondorengo adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutatutako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

576. DEKRETUA

2024.12.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko abenduko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko abenduaren 30eko eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jaso, non, besteak beste, ondorengo adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutatutako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

001. DEKRETUA

2025.01.09.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS	A60917978

Prozedura

Aseguru zerbitzuak

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
10197	2024.12.11.	3.222,87 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025ko urtarrilaren 9an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Goian aipatutako aseguruia inolako legezko euskarririk gabe kontratatu da.

Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu. Izan ere, urtez urte kontratatu ditu aseguru berdinak, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.

“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako” kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak kiroldegiko obradorearen aseguruia prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Hortaz, argi dago inolako oinarri juridikorik izan gabe kontratatu den zerbitzua dela, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe, eta kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari-kontuhartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

002. DEKRETUA

2025.01.10

Hartzekodunak	Hartzekodunak
TOLOMENDI	G20326237

Prozedura

Zerbitzua

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
F-125	2024.11.27.	2.090,58 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025eko urtarrilaren 9an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.

Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkeroztik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.

Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.

Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatiko gastuak.

013. DEKRETUA

2025.02.05.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2025eko urtarrileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko otsailaren 4ko eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

014. DEKRETUA

2025.02.05.

Hartzekodunak	Hartzekodunak
LANDARRI, S.L.U.	B20531448

Prozedura

Hilerriko zerbitzuak

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
------------------	------------------	------------------



988040	2024.12.19.	1.304,30 €
--------	-------------	------------

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025eko otsailaren 4an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko; zerbitzua lizitazio publikora atera beharko litzateke.

Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion ez dokumenturik, ezta espedienterik ere. Landarriekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkeroztik Anoetako Udalak Landarri enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedientearen berri eman du:

- ❖ OMI 3/2024 espedientea, Alkateak 2024ko azaroaren 21eko 560. dekretuz (564. dekretuan bikoiztutakoa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Anoetako Udalerriko familientzako dirulaguntzak, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo DBHn matrikulatutako haurren eskola irteerak, eskola kirola eta igeriketa egiteko 2024/2025 ikasturtean.	
Gastuaren izaera	
Dirulaguntza	
Organo kudeatzailea	
Gizarte Zerbitzuak. Gizarte Langilea.	
Eginkizun kontu-hartzailea saihestu duen administrazio jarduketa	
Anoetako Udalerriko familientzako dirulaguntzen deialdia 2024-2025 ikasturterako.	
Data	Lekua
2024.09.06.	172. GAO, 2024ko irailaren 6koa. BDNS (Identif.): 783104
Aurrekontu-partida eta zenbatekoa	Organo eskuduna
1.0000.480.230.00.01 3.000 €	Alkatea

- ❖ OMI 4/2024 espedientea, Alkateak 5. Dekretuz (2025eko urtarrilaren 10ekoa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
636-E famili esku-hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 038/2024 FAKT-774 1700 2024.08.07	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 043/2024 FAKT-870 1700 2024.09.06	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 048/2024 FAKT-951 1700 2024.10.03.	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 057/2024 FAKT-1030 1700 2024.11.05.	873,54 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espdte. 636E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
785-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 340-2024 FAKT-979 3807 2024.10.31.	5.296,53 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA G20745287	Anoetako esku hartze soziohezitzailea (Esku Hartze Familiarra) zerbitzua (espdte. 708E)

Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
Estimulazio tailerreko saioak	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2024/A290 FAKT-942 2026 2024.10.02.	186,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2024/A322 FAKT-994 2026 2024.10.31.	217,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL G20380879	Oroimen saioetako orduak
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

- ❖ OMI 1/2025 espedientea, Alkateak 17. Dekretuz (2025eko otsailaren 6koa) altxatutakoa, Alkatetzatik izapidetutako Begoña Alvarez Galan ordezkapen lan kontratuaren bidez kontratatzeko espedientean eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gainekoa.

GASTUAREN XEHETASUNAK		
Hartzekoduna	IFZ / IFK	Zenbatekoa
Begoña Alvarez Galan	44134428G	1.926,01 €

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

8. “BEIJINGO ADIERAZPENAREN ETA EKINTZA PLATAFORMAREN 30. URTEURRENA; HIRU HAMARKADA BERDINTASUNAREN BIDEAN”



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, 2025EKO MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.

Korporazioa osatzen duten bi talde politikoek, adostasunez, ondorengo adierazpena aurkeztu dute:

“ ...

Gaur, 2025eko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin bat egin nahi dugu. 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero-berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko munduko ibilbide-orria abian jarri zuten.

Ibilitako azken 3 hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina bilakaera desorekatua izan da eta oraindik munduko herrialde bakar batek ere ez du lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna. Hala eta guztiz ere, berdintasun-indizeek aurrerapena nabarmena izan dela erakusten dute, berdintasun-politiken araudi-eta erakunde-garapena eta mugimendu feministaren bultzada iraunkorra bateratu diren testuinguruetan.

30. urteurren horrek konpromisoak eta borondateak berritzeko aukera ematen digu, Beijingen adostutako berdintasunaren helburuak lortzeko, beharrezkoak diren baliabideak bideratuz, erronkei eta oraindik dirauten oztopoei aurre egiteko.

Euskal erakundeek eta, bereziki, tokiko gobernuek, 30 urte hauetan metatutako ebidentzia dute, eta horrek agenda feminista globalean oinarritutako berdintasun-politiken bermatu eta legitimatu egin du.

Euskal udalek genero-berdintasunaren lorpena bizkortzeko mundu-mugimenduarekin bat egin dute, emakumeen eta nesken ahalduntzearen eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez. Tokiko eremutik arlo kritiko globaletan aurrera egiten laguntzeko, Anoetako Udalak ondorengo konpromisoak hartuko ditu:

- Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate-Estandarren arabera.
- Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezen eta eragin dezaten.
- Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonak berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.
- Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko.
- Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.
- Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko tokiko ekintza-planetan jasotako agenda feministen gaineko kontuak ematea, aldian-aldian.
- Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian edo herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.

- Mugimendu Feministarekin batera Zaintzen aldeko Herri Akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, Zaintza mahaietan besteak beste.
- Zaintzaren diagnostikoaren gaiari buruzko proiektu bat abiatzea, alor ezberdinetako arduradun instituzional, langile eta kolektiboekin batera. Dagoeneko diagnostiko horren oinarriak identifikatuak ditugu, abiatzea izango da hurrengo pausua.
- Jabekuntza Eskolei eta Emakumeen Etxeei behar adina baliabide bermatzea.
- Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian edo herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.
- Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.

...”.

GALDE-ERREGUAK

9.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak, lehenik eta behin, udal kiroldegia buruz azkenaldian izan diren kexen inguruan galdetu du. Alkateak erantzun du azkenaldian kexak areagotu egin direla garbiketari, makinen mantentze-lanei eta tasen igoerari dagokienez. Garbiketari dagokionez, egiaztatu da arazoa ez dela eraikinen garbitzaileek egindako garbiketa, baizik eta espazioen eta instalazioen mantenua, eta horren berri eman zaie erabiltzaileei. Era berean, makinak mantentzearen arazoa kiroldegia kontratuaren enpresa esleipendunarekin hitz egin da, eta hark beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartu beharko ditu. Eta, azkenik, tasaren igoerari dagokionez, hura onartu zenean argudiatu zen bezala, beharrezkoa zen dagoen defizita estaltzeko, baita kiroldegian egin nahi diren hobekuntzei aurre egiteko ere, besteak beste, “Mugiment” programari atxikitzea.

Bigarrenik, EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak iragarri du, biharko egunean, bere taldeak idazki bat aurkeztuko duela Tolosako eskualdeko hiltegiaren zerbitzuari buruzko gai batzuekin. Alkateak hiltegiko zerbitzuaren egungo egoera azaldu du, eta adierazi du du, hain zuzen ere, gaur arratsaldean bertan Tolosako Mankomunitatea bere udalerrian dagoen hiltegiko zerbitzuaren bahiketa eztabaidatzen ari dela ezohiko batzarrean.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:27tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino